

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

NUPko Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak

Iker Goikoetxea eta Urtzi Garaita
(NUPko Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoko ikasleak)

Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoa ikasten ari garenon ezinegon azaldu nahi dugu, azken asteotan jazoriko hainbat gertaera direla medio. Unibertsitatean ikasle gehienei informazioa helarazteko inongo erraztasunik eman gabe, gure etorkizuna baldintza dezakeen plan moldaketa bat onartu du. Plan hori datorren urtean jarriko litzateke martxan, irakasgaien egokitzapenak eta kredituen inguruan gorabehera garrantzitsuak sortuz ikasleen gain.

Egoera ikusirik, ikasleen artean dagoen desinformazioa salatu nahi dugu, eta baita

Unibertsitateko erabaki organoetan ikasleak kontuan hartu ez izana ere. Ikasleak unibertsitate bateko zati garrantzitsu bat diren une beretik, beren ikasketei eragiten dieten gai buruz lehen eskuko informazioa jasotzeko eskubide osoa dute. Hori horrela izanik, ikasleen aburuz, zilegi litzateke honen guztiaren erantzuleek egoera horri lehenbailehen azalpen eta aterabide egokiak ematea.

Laratz, Laratz...

Antxon Ubiria • IRUN

Lotsagarria, kezkarria... ene uste apalez hori baita hartzen ari zaren bidea, *Operacion Triunfo* delakoari, *Hola* eta antzeko aldizkariari, abeslari erdaldunei eta abarri, gero eta denbora gehiago eskainiz, euskal-

dun askoren amorrua sortuz, zeintzuek katea aldatzea edo telebista mutuaraztea baino beste irtenbiderik ez duten.

Lanzarote ez, Fuerteventura baizik

Josu Lartategi

Ostiral eguerdian etxera heldu eta zera diost emazteak: «¿Queee? ¿Con que Tindaya en Lanzarote, eh, guanajo? Fueerteveentura, Josu, Fuerteventura. Así que de conejeros nada, sino majoreros. ¡Mira que se te fué el baiño, papafrita!». Burmuinaren misterioengatik sortuko zen hankasartzea, diot nik, alabak izen *conejero*-a duelako, Lanzaroteko alegia, eta berorren amaren jatorria ere irla hartan baitago. Barka biezadate burmuinaren jokaldi bihurri hau eta argi


gera bedi Tindaya Fuerteventuran dagoe-la.

Gurean hago, Iosu

Xabier Artola (Kixurrako lagun izenean)

Hire argazkiari erreparatu eta irribarra ateratzen zaidak, hi heu aurrez aurre bango bezalaxe. Hire *dandy* begirada, begietan sua, bihotzean poza. Bizipoza. Hire bizipoza zekarkidak gogora. Egutero, unero eta edonon erakusten zenigun bizipozak gurean erroturik dirauen seinale. Izan ere, ez zakiat izango den mundu honetan inor hik bezala, agertzearekin soilik, lagunak piztuko eta alaituko dituenik, suspertuko eta indarberrituko dituenik. Gurean hago, Iosu, inoiz baino gertuago, barneratutako. Maiteago, betiko.

montxo



galdeiozu...



**IZARO
IRAETA**

Telebistako aurkezlea

Etorkizunari begira baduzu buruan telebistan edo beste alorren batean egitea gustatuko litzaizuen zerbait?

Iñigo Jauregi (Irun)

Oraindik bitzta guztia dut aurretik gauzak egiteko; beraz, pentsa! Telebistaren munduan badaude gustura egingo nituzkeen saio eta formatu ugari. Irratian lan egitea ere gustatuko litzaidake, eta baita prentsa idatzian ere. Komunikabideen mundua zabala da oso, eta aukera asko eskaintzen ditu. Ni orain arte alor batean mugitu naiz, baina ez dut neure burua ezertara mugatu nahi. Gainera, ez dugu ahaztu behar Internet ere hementxe dugula eta amaraunak mila posibilitate berriren aurrean jarri gaituela. Etorkizunean komunikabideak eta Internet bat eginda ezagutuko ditugu, komunikatzeko aukera berri bat izango dugu, eta hori ere arras interesgarria iruditzen zait. Beraz, etorkizunean zerbaitetan bai, baina zein saltsa-maltsatan eta zertan ez dakit.

Apirilaren 23tik aurrera **Tere Saez • Andreako koordinatzailea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta

Koldo Almandoz



Astebeteko paper solteak

Edozein tokitan apuntatzen ditut hirustarako gai posibleak. Tabernetako ahozapiak, poltsikoan ahaztutako zinema sarrera, medikuak emandako errezeta, pizza kaxa zatia... edozein euskarrik balio dezake, unean uneko ideiak idazteko:

—Heldu gara gure gurasoak hiltzen hasten direneko adinera. Astelehena. Hileta. Lagun bati pixagura sartu zaio. Elizek, beste edozein gune publikoren moduan, komunak eta ezinduentzako azpiegitura izan beharko lukete. Baina ez dute.

—«Bi ume klase daude. Amaren sabelean egon direnak eta egon ez garenak». Haur adoptatu batek esana.

—TMEO-a iritsi zait. Goi mailako kultura garai hauetan gero eta ihesbide gutxiago.

—Tabernak eraberritzerakoan *peorak* egingen dituztela aipatu du Xabierrek. Arrazoi du.

Gero eta eskagoak dira xarma duten tabernak. Edo ez ote gara gu xarma galtzen ari garenak?

—Terrazako landareak ureztatzen ditudan bakoitzean irla desertu bateko enperadore sentitzen naiz.

—«Maite nuen. Baina gehiago maite nuen nire bizioa, zer den ere ez dakidan zerbaiten bila ihes egitea...». Louis Ferdinand Céline-k gauaren muturrerainoko bidaian.

—Geroz eta urriagoak dira muztioan azeituna jartzen duten tabernak. Jokinek dio atzeraldi ekonomikoaren lehendabiziko sintoma dela.

—«Zoriontsu izan zaren tokietara ez da itzultzea komeni». Entzun dut kantu batean. Ni Pa-sealeku Berrira behin eta berriro itzultzen naiz. Ekaitz egunetan. Euriak edo itsasoak galtzontziloak busti arte.